

Espedient-zk.:	COMSUB/2025/10
Dirulaguntza-lerroa	MERKATARITZARAKO DIRULAGUNTZAK
Aurrekontu-partida	062 4310 77101
Partidaren deskribapena	KAP. TRANSF. ENPRESA, MERKATARITZA ETA OSTALARITZARA
Zenbatekoa	90.000,00 €
Laguntza emateko prozedura	ZUZENEAN EMATEA

Deialdi hau argitaratzen da Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren babesetan. Ordenantza hori 2024ko maiatzaren 30eko osoko bilkuran onetsi, eta 2024ko abuztuaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten, eta berau da dirulaguntzen oinarri arautzailea.

1.- XEDEA

Deialdi honen xedea da Basauriko Udalak herriko xehekako dendak, jarduerak eta ostalaritza berriztatzeko eta horien lehiakortasuna hobetzeko ematen dituen laguntza ekonomikoak zuzenean banatzeko deialdia arautzea.

Laguntza horien helburua da, batetik, negozioaren establezimenduak berritzeko, modernizatzeko edo balioan jartzeko inbertsio-proiektuak finantzatzea, eta, bestetik, horien profesionaltasuna eta/edo lehiakortasuna eta kalitatea hobetzea. Hori guztia, jarduera mantentzen laguntzeko.

2.- ENTITATE ONURADUNAK

1.- Deialdi honetako laguntzak jaso ahalko dituzte honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoez, ondasun-erkidegoek edo sozietate zibilek:

- «Enpresa txikia» izatea. Europako Batzordearen 2003/361/CE Gomendioari jarraiki, hala izango dira bai egoitza Basaurin dutenak, bai, salbuespenez, egoitza beste udalerrri batean duten enpresa edo merkataritza-establezimenduak, baldin eta enpresa garatzeko proiektua Basaurin kokatuta badago. Era berean, «enpresa txiki»ek, gehienez ere, 50 langile edukiko dituzte, eta urteko beren negozio-bolumenak edo balantze orokorrak ezingo du 10 milioi euro baino handiagoa izan. Bestalde, enpresaren datuak zehazterakoan, aintzat hartuko da ea enpresa autonomoa den ala, aipatutako gomendioaren irizpideen arabera, enpresa elkartua edo lotua den. Kasua hori bada, datuak zehazteko kalkulua egingo da 2003/361/CE Gomendioaren 6. artikulua xedatutakoarekin bat.
- Gutxienez urtebetez eratuta eta jardunean egon izana, ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emateko datatik zenbatzen hasita. Diruz laguntzeko gastuek ere data horren ostekoak izan beharko dute.
- Administrazio publikoekiko zerga-obligazioak beteta edukitzea, bai eta Gizarte Segurantzarekikoak ere. Basauriko Udalarekiko zerga-egoerari dagokionez, Udalaren Merkataritza Atalak egiaztatuko du, ofizioz.

- 2024an eta aurreko urteetan dirulaguntzak jaso izanak ez du eragotziko 2025ean dirulaguntzak eskatu ahal izatea.

- Ezingo dute entitate onuradun izan Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorreko 11. artikuluan jasotako inguruabarren bat betetzen dutenek.

- Merkataritza-jardueran titulartasun-aldaketarik egoten bada, dela eskualdatzea edo ondorengotza gertatu delako, dela forma juridikoa aldatu delako, dela aurretiaz existitzen den enpresa batetik bereizi izanagatik, ez da urtebeteko epea berriro zenbatzen hasiko: aldaketa gertatu aurretik hasitako epea mantenduko da. Merkataritza-titulartasunaren aldaketari dagokionez, bakar-bakarrik izapidetuko dira familiari edo langileei egindako ondorengotzaren, edo forma juridikoa aldatu izanaren ondoriozko titulartasun-aldaketen kasuak.

2.- Honako hauek ezingo dute dirulaguntzarik jaso:

- Finantza-erakundeak (81. elkartea)

- Merkataritza-zentro edo -azalera handietan dauden lokaletan egindako jarduerak.

- Zuzenbide publikoko entitateak eta administrazioen sozietate publiko eta/edo entitateak.

- Irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkartegintza-jarduerak egiten dituztenak.

3.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN KONTZEPTUAK

1.- Diruz lagundu ahalko dira dirulaguntzaren xede den establezimenduan 2025eko urtarilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean (biak barne) egiten diren inbertsio-proiektuak, bai eta 2024an izapidetu ezin izan direnak ere.

2.- Diruz lagundu ahalko dira, BEZa kanpo utzita, jarraian adierazitako gastu eta inbertsioak, baldin eta enpresaren jarduerari lotuta badaude eta justifikatuta badago deialdi honen xedean jasotako inbertsio-proiektuak finantzatzeko direla. Hona hemen:

- Merkataritza-lokalen barrualde eta kanpoaldea egokitzeko lanak: esparrua atontzea, lokalaren distribuzioa aldatzea edo bere itxura hobetzea. Kasu horretan, aintzat hartuko dira, bakar-bakarrik, dagozkion obra- edo instalazio-lizentzietan adierazitako zenbatekoak.
- Mugikortasun murriztua duten pertsonen sarbidea errazteko eta oztopo arkitektonikoak kentzeko egindako berritze lanak. Kasu horretan, aintzat hartuko dira, bakar-bakarrik, dagozkion obra- edo instalazio-lizentzietan adierazitako zenbatekoak.
- Negozioaren merkataritza-jarduerarekin argi eta garbi lotura duten makina elektroniko edo mekanikoak erostea.
- Merkataritzako altzariak eta ekipamendua erostea.
- Lokalerako etxetresna elektrikoak eta klimatizazio-ekipoak erostea, baldin eta energia-efizientzia altua badute (A, B edo C bereizgarriak).

- Informatika-ekipo eta -aplikazioak, kudeaketarako software-ekipoak, i-pad-ak, tabletak... erostea, baldin eta establezimenduan erabiltzeko badira eta horien beharrezana behar bezala argudiatuta badago. Zentzu horretan, deialdi bakoitzean informatika-ekipo bakarria baino ez da aintzat hartuko, eta inbertsioa gauzatzen den establezimendu bakoitzeko unitate periferiko mota bat.
- Aholkularitza-taldeak kontratatzea merkataritzako kalitate-arauak ezartzeko edo arau horiek ziurtatzeko.
- Argiztatzera, erakusleho-apainketarako teknika berritzaileak ezartzera edo salmenta-puntua diseinatzera eta girotzera bideratutako baliabideak optimizatzea.
- Merkataritza-jarduerarekin lotura zuzena duten eta merkataritza-eremu batean dauden espazio eta elementu komunak hobetzeko eta modernizatzeko egindako inbertsioak: korridoreetan, instalazio teknikoetan, kanpoko fatxadetan edo sarbideetan egindako inbertsioak, baldin eta gunek horiek kudeatzen dituen laguntzaren xede den establezimenduan egindako jardueraren titularra bada, jabeen erkidegoan.

3.- Deialdi honetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira Espainiako, Europako Batzordeko edo nazioarteko administrazio, erakunde publiko edo pribatuak xede bererako emandako dirulaguntza, laguntza edo baliabideekin, baldin eta jasotako kopuru osoak ez badu diruz lagundutako jardueraren kostuaren % 100 gainditzen. Kasua hori bada, programa honetatik jasotako laguntza txikitu egingo da, gainditutako zenbatekoan.

4.- LAGUNTZA JASO EZIN DEZAKETEN KONTZEPTUAK

Honako gastu hauek laguntza hauetatik kanpo geratuko dira:

- Balio erantsiaren gaineko zerga.
- Lokala erosteagatiko, alokatzeagatiko edo eskualdatzeagatiko gastuak.
- Autoak edo bestelako ibilgailuak erostea.
- Merkaturatu beharreko salgaiak erostea.
- Merkataritza-jardueraren berezko elementu suntsikorrak, bai eta bulego-materiala, erremintak eta antzekoak ere, baldin eta gastutzat hartzen badira, ez inbetsiotzat (poltsak, biribilkiak, kartutxoak, orriak, bulegoko materiala, baxera, mahai-tresnak, kontsumigarriak, garbiketa-produktuak eta abar).
- Lokalak garbitzea eta desinfektatzea.
- Aseguruak, harpidetzak, urteko kontrol-zerbitzuak, aholkularitzak eta aholkularitza juridikoak ordaintzea.
- Telebistak eta telefonoak eskuratzea.

- Antibirusak eta kudeaketarako informatika-aplikazioen edo softwarearen lizentziak edo kuotak.
- Zerbitzu teknikoak eta gailu baten mantentze-, konponketa- edo ordezte-gastuak.
- Jardueraren funtzionamendu-gastuak.
- Ekipamendua leasing edo renting bidez eskuratzeagatiko gastuak.
- Administrazio-baimenengatiko, baimenengatiko edo lizentziengatiko garraio-gastuak, aseguruak eta tasak.
- Dekorazio-osagarriak eta etiketatzeko materiala, ez bada establezimenduaren irudi bisuala hobetzeko plan baten parte direla. Kasua hori bada, plan osoa zehaztu beharko da, eta aurreko eta osteko egoeraren irudiak aurkeztu.
- Aparejadoreen, arkitektoen, abokatuen, kontsultoreen eta abarren zerbitzu-sariak.

5.- ESKABIDEAK AURKEZTEA

Eskabideak egiteko, dagokion eskabide-orria aurkeztuko da Basauriko Udaleko Herritarren Informazio eta Arretarako Bulegoan. Bestela, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen abenduaren 1eko 39/2015 Legeak baimendutako edozein bide ere erabili ahalko da. Eskabidea aurkezte hutsagatik, interesdunak deialdi honetako edukia onartzen duela joko da.

6.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Eskabideak aurkezteko epea hasiko da deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunean, eta 2025eko abenduaren 31ean amaituko da. 2024an zehar eskabidea aurkeztu eta ordainketa jaso ez zutenek ez dute eskabide berririk aurkeztu beharko, eta eskabide horiek, gainera, lehentasuna izango dute.

7.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- Dirulaguntza-eskaerak eskabide-eredu normalizatuan aurkeztuko dira, sinatuta eta lauki guztiak behar bezala beteta. Merkataritza-establezimendu bakoitzak laguntza-eskaera bakarra aurkeztuko du egindako inbertsio guztietarako. Eskabideei honako hauek erantsi beharko zaizkie:

- a) Egindako inbertsio, berritze edo erosketen deskribapen-memoria bat. Memoria horretan, gastu guztiak justifikatu beharko dira, banan-banan xehatuz eta horien beharizana eta xedea argudiatuz. Memoriak, bestalde, honako hauek jaso beharko ditu:
 - Azalpen labur bat, ea inbertsioa zein neurritan den establezimendurako hobekuntza. Gastuak justifikatzeko argazkiak ere aurkeztu ahal dira.

- Fakturen zerrenda, non honako hauek agertuko baitira: faktura-zenbakia, data, deskribapena, hornitzailea, BEZik gabeko zenbatekoa eta ordainketa-data. Laguntzeko zenbatekoa osa ere adieraziko da (BEZik gabe).
- Energia-efizientzia altuaren etiketa, diruz lagun daitezkeen inbertsioen ataletan hala eskatzen bada.

b) «Enpresa txikiak» definitzen dituzten ezaugarriak betetzen direla jasotzen duen zinpeko aitorpena, deialdi honen 2. artikuluan jasotzen denaren arabera. Zentzu horretan, oinarriotako II. eranskinean agertzen den dokumentua bete beharko da.

c) Enpresak zerga-betebeharrak dituen administrazio publiko guztiek emandako ziurtagiri originalak, enpresak betebeharrak horiek egunean dituela egiaztatzen dutenak. Ziurtagiri horien ordez, eman beharreko dirulaguntza 3.000 eurotik gorakoa ez bada, Udalak emandako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal da.

d) Sozietateen kasuan, eskabidea egiten duen pertsona sozietatearen ordezkari gisa ari dela egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia, sozietatearen IFK eta pertsona fisikoaren NANA edo lan-baimena.

e) Hirugarrenaren fitxa, denda edo enpresa eskatzailearen banku-datu guztiak jasota. Fitxak enpresaren kontua dagoen finantza-erakundearen zigilua eduki beharko du.

f) Aitorpena, deialdi honetan diruz laguntzeko kontzeptu gisa jasotakoak finantzatzeko enpresak egin dituen edo egin asmo dituen beste finantziario-eskaerei buruzkoa, oinarriotako III. eranskineko ereduari jarraituta egindakoa.

g) Basauriko Udal Dirulaguntzak emateko Ordenantzaren 11. artikuluan ezarritako debekurik ez dagoela jasotzen duen erantzukizunpeko aitorpena, IV. eranskineko ereduaren arabera egindakoa.

h) Egindako inbertsioen fakturen eta ordainketa-agirien jatorrizkoa eta kopia, baldin eta 600 eurotik gorakoak badira.

Faktura horiek 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean jaulkita egon beharko dute, eta osorik ordainduta egon. Era berean, kontzeptuak xehe-xehe eta egokiro deskribatuta egon beharko dira. Kodetutako kontzeptuak badira, horiei buruzko informazioa erantsiko da.

Ez dira onartuko banku-ordainagiriak, baldin eta ez badute argi eta garbi identifikatzen ordainketa dirulaguntza eskatzen duen enpresak egin diola hornitzaileari.

Bakar-bakarrik onartuko dira hornitzaileak eskudirutan egindako ordainketen ziurtagiriak edo hornitzaileen kobrantza-ziurtagiriak, baldin eta zenbateko osoak ez badu gaitzen ordainketa egiteko unean indarrean dagoen legeriak baimendutako muga eta fakturretan ez bada bestelako ordainketa-biderik adierazten. Legeak ezarritako muga hori webgune honetan kontsultatu ahal da: <https://sede.agenciatributaria.gob.es/>.

i) Obra-lizentzia edo jarduketa komunikatua eta dagokion tasa ordaindu izanaren agiria.

2.- Ez bada eskatutako dokumentazioa edo eskatutako guztia aurkezten, Basauriko Udalak errekerimendua egingo dio enpresa edo merkataritza-establezimenduari, ez-betetzea zuzen dezan edo falta dena aurkez dezan. Horretarako, hamar egun balioduneko epea emango zaio eskatzaileari, jakinarazpena jasotzen duen datatik zenbatzen hasita —hala egiteko xedatzen du-eta Herri Administrazioen Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua—. Epe hori igarota dokumentaziorik aurkeztu ez bada, joko da eskatzaileak uko egin duela, eta eskabidea artxibatu egingo da.

Halaber, Basauriko Udalak beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarria eskatu ahalko du, enpresa eskatzaileak Laguntza Plan honetan parte hartzeko eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ahal izateko.

8.- DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Basauriko Udalak gastu eta/edo inbertsioak kofinantzatuko ditu: oro har, zenbatekoaren % 40raino, eskabideko 1.000,00 €-ko mugarekin. Jarduera-titular bakoitzak nahi beste eskabide aurkeztu ahalko ditu, urtean zehar. Establezimenduan egindako inbertsioaren xedea baldin bada mugikortasun urria duten pertsonen sarbidea errazteko eta oztopo arkitektonikoak kentzeko obrak egitea edo establezimendua irisgarriagoa egiteko neurriak ezartzea, Basauriko Udalak gastu eta inbertsioen % 50 kofinantzatuko du, eskabideko 1.200 €-ko mugarekin.

Aipatutako zenbatekoak % 10 igoko dira, hau da, % 50 edo % 60raino heldu ahal izango dira —inbertsioaren izaera zein den—, baldin eta dena delako zerbitzua egoitza fiskala edo establezimendua Basaurin duen enpresa batek ematen badu. Gehienez eman ahalko diren kopuruak, dena dela, aurreko atalean adierazitakoak izango dira.

Jasotako laguntzak ez dira itzuli behar izango.

9.- ENPRESA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntza hauek jasotzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Laguntzak erabiltzea berariaz horien xede diren kontzeptu eta zenbatekoetarako, eta adierazitako epeetan.
- b) Basauriko Udalak egin ditzakeen egiaztatze-jarduketan eta dagozkion finantza-kontrol jarduketan menpe jartzea.
- c) Xede bera duten dirulaguntzak edo bestelako laguntzak jasoz gero, Basauriko Udalari jakinaraztea; eta adieraztea, era berean, dirulaguntza hau emateko aintzat hartuak izan diren beste edozein inguruabar objektibo zein subjektibotan egondako aldaketak. Horretarako, zinpeko aitortpena aurkeztu beharko da.
- d) Laguntza jaso duen establezimenduan jarduera ekonomikoa egotea, gutxienez, urtebetez (laguntza jaso duen fakturaren datatik zenbatzen hasita).

Establezimendua adierazitako epea baino lehenago ixten bada, enpresa onuradunak Udalari hori jakinarazi, eta emandako dirulaguntzaren zati proportzionala itzuli beharko dio: jarduera eten denetik urtebetea amaitu arte doan zatia, alegia.

e) Inbertsioak udalerriko establezimendu batean egin beharko dira. Onuradunak establezimenduak baditu udalerrri kanpoan eta barruan, zinpeko adierazpena aurkeztu beharko du, adieraziz inbertsioa Basauriko establezimenduan egingo dela.

f) Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako printzipioak eta betebeharrak betetzea — emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen du legegintzako dekretu horrek—. Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan hizkera sexista saihestuko da, bai eta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak erakusten dituzten irudiak ere. Halaber, balio hauek sustatu beharko dira, emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, parte-hartze orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta genero-rolen eta -identitateen aniztasuna.

10.- AURREKONTU-KONTSIGNAZIOA

Basauriko Udalak, 2025eko ekitaldian zehar, 90.000 € bideratuko ditu deialdi honetako diru-zuzkiduretar, eta honako partida honen kontura ordainduko da: 062 4310 77101, «Kap. transf. enpresa, merkataritza eta ostalaritzara. Ekonomia- eta merkataritza-sustapena».

11- LAGUNTZAK ORDAINTZEA

Onuradunak, egindako gastuak justifikatzeko, dagozkion fakturak eta horien ordainagiriak aurkeztuko ditu. 600 €-tik gorako fakturen ordainketak banku-agiri bidez egiaztatuko dira: bai transferentzia-egiaztatagiri bidez, bai helbideratze-egiaztatagiri bidez, bai horien parekoen bidez. Faktura bakarra aurkeztu beharko da, baldin eta dirulaguntza eskaeran hornitzaile beraren zenbait faktura badaude eta horiek guztiek bat egiten badute merkataritza-establezimendu baterako inbertsio edo eskaera bakarrarekin. Era berean, ezingo dira fakturak zatikatu, horietako bakoitzak 600 €-ko zenbatekoa ez gainditzeko. Eta fakturok ordaindu beharko dira banku-transferentzia bidez, horiek helbideratuta edo pareko bide bat erabilita.

Aurrekontu-partidan jasotako kontsignazioa agortzen bada ere, ez dira baztertuko 2025ean zehar eskatutako laguntza.

Urte horretan aurkeztu, eta, kreditua agortu izanagatik, izapidetzeko zain geratu ziren edo zegozkion laguntzak jaso ez zituzten laguntza-eskabideak hurrengo ekitaldiko aurrekontu-kreditura egotziko dira, hala xedatzen bada.

12.- APLIKATZEA DAGOKION ARAUDIA

Prozedura arautuko du onetsitako deialdiak berak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak, eta Udal Dirulaguntzak emateko indarreko Ordenantzak.

13.- ONURADUNEI BURUZKO INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALTASUNA

Basauriko Udalak bere gain hartzen du laguntza hauen onuradunei buruzko informazioa programaren eremutik kanpoko xedeetarako erabiliko ez dela bermatzeko konpromisoa.

